

BALIO PROPOSAMENA

Taldea: Iker, Beñat, Oier, Manex eta Ainhitze

Idea: Aparkalekurako aplikazioa eta produktua

Aparkatzeko zerbitzuak gidariaren erosotasuna du xede. Gidariaren denborari ahalik eta zuku gehien ateratzeko, denbora eta dirua aurrezte da proiektuko sortzaileen helburu nagusia. Gidariaren hiru pausuak azkarra, eroso eta merkea izatea nahi du *Park Fast*-k.

Gidariak askotan denbora galtzen du aparkalekua bilatzeko garaian, baita denbora urrea denean ere. Askotan, garestia izaten da aparkalekua bilatzeko prozesua eta aparkatzea bera, bilatzea konplikatu izatera iritsi arte. Hori betirako ahazko garaia iritsi dela iruditu zaigu; hori dela eta sortu da aplikazioa.

Irudikatzeko, gidaria autoan iritsi da bere bilera burutuko den kokagunera eta denboraz nahiko juxtu dabil, baina arazo batekin topatzen da: ez du aparkatzeko lekurik aurkitzen kokalekutik gertu. Arazo horri amaiera emateko helburua duenez, aparkatu nahi dugun lekuaren satelitezko mapa batek aparkatzeko hutsune egokia aurkituko dio, gertu egotea eta autoaren neurria ere kontuan izanik.

Gainera, parkinetan ez ezik, kalean sensore batzuk instalatuz, aire librean zerbitzu hau erabiltzeko aukera izango du bezeroak berandu baino lehen. Etorkizunagatik apostu egin nahi du enpresak, horregatik hartu du erabilera mugatzen duen araua: ibilgailu elektriko eta hibridoek izango dute zerbitzu hau merkeago erabiltzeko aukera, CO₂ isurtzen dutenen eta horien sustapenaren aurka.

Hainbat eta hainbat faktorek bereizten dute zerbitzua, beste lehiakideengandik. Besteak beste, kaleko aparkalekuetan lekua bilatzeko aukera ematen duen lehenengo aplikazioa baita. Gainera, berrikuntzaz gain, prezioa ere izan daitekeen egokiena da horrelako zerbitzu bati dagokionez. Hori gutxi balitz, CO₂ emisioen aurkako erabakiak bezeroaren arreta erakarriko du eta lehiakidearengandik desberdindu.